

Eta zergatik dira bereziak Gabonak?

Irati eta Beñatentzat honelakoak dira Gabonak. Irakurri, irakurri:

Guretako Gabonak apartekoak dira!

Oporrak izaten ditugu eta jolas asko egiten dugu egun horietan. Gainera, abenduaren 24an, Olentzero etortzen da, eta opari berriak ekartzen dizkigu! Amama eta aitaitaren baserrira joaten gara afaltzera eta familiarekin elkartzen gara. Gauza gozo-gozoak jaten ditugu, baita txokolatea ere! Bonboiak, turroia, polboroiak, tartak... Afaltzen amaitzen dugunean, denok jartzen gara beheko suaren epelean eta kantatu egiten dugu.

Hator-hator mutil etxera

gaztaina ximelak jatera.

Gabon gaua ospa(tu)tzeko
aitaren (e)ta amaren ondoan.



Eta, zuretako bereziak dira?
Kontatu zure Gabonak nolakoak izaten diren:

